

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

2178

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 10ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntza-programa bat jarduera bertan behera uzteagatik.

Garraiolari autonomoen adin handia da errepidez egiten den garraio publikoaren sektoreari eragiten dioten arazoetako bat. Hori dela-eta, sail honek uste du egoki dela adin handiko profesionalen lanbidea bertan behera uztea sustatzea, hain zuzen ere errepide bidezko garraio publikoaren sektorean bizitza profesional gehiena egin duten profesionalen dagokienez; eta, hartarako, beharrezko baliabideak jarriko dira.

2022ko ekitaldian, honako sektore hauei erantzun zuzena emateko: ibilgailu arin eta astunetan errepidez egiten den salgaien garraio publikoa; eta autobusez egiten den bidaiarien garraio publikoa; izan ere, sektore horietan, adin handiko garraiolari askok ez dute beharrezko baliabiderik jarduera bertan behera uzteko, eta, beraz, aipatutako laguntzek gizarte-funtzioa egiten dute. Halaber, garraiolari hauek sartuko dira: ezintasun iraunkor absolutua edo osoa aitortua dutenak, eta bai baliazintasun handia aitortua dutenak ere.

Laguntza-programa hau sartuta dago Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko ekainaren 2ko Aginduaren bitartez onartutako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako 2021-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, eta egoitza elektronikoa honetan kontsulta daiteke: <https://www.euskadi.eus>. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren helburuen barruan sartzen da jarduera hau, xedetzat baitu garraio-sektorearen funtsezko elementu bat: garraiolaria.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legeak baimendutako kredituen arabera, dirulaguntza-deialdi honek nahikoa aurrekontu-estaldura dauka.

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 4.1 artikulua ematen didan aginpidea erabiliz, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaz onartutakoaren– VI. titulua eta VII. tituluko II. eta III. kapituluak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ordaindu beharreko laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gaitzeko xedapenak kontuan harturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.– Agindu honen helburua araubide hau arautzea da: bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektoreko adin handiko garraiolariak, ezintasun iraunkor absolutua edo osoa aitortua dutenak eta baliazintasun handia aitortua dutenak, lanbidea bertan behera uztea sustatzeko laguntza-araubidea (2022. urtea).

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko, hirurehun eta hamar mila (310.000,00) euroko diru kopurua baliatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako kontu-sailetatik hartuta.

2. artikulua.– Pertsona onuradunak eta garraiolari jarduerarekin lotutako betekizunak.

1.– Eskabideak aurkezteko azken egunean honako betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke agindu honetan araututako laguntzen onuradunak:

a) 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

b) 63 urtetik 64 urtera (biak barne) bitarteko adina izatea, edo garraiolariaren ohiko lanbidean jarduteko ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia aitortua izatea, pentsioaren onarpen-data adierazten duen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpenarekin. 2021eko ekainaren 1ean sei hilabete oso baino gutxiago falta badira hirurogeita bost urte betetzeko, ez da emango laguntzarik.

c) Azken hamar urteetan, etenik gabe, gehienez ere hiru kopiarekin autobusaren bidezko bidaiariaren edo salgaien garraio publikorako indarreko baimen baten titular izatea; edo bi horiek batera izatea, gehienez ere hiru kopiarekin. Baimen horrek eten gabekoa izan beharko du, eta gutxienez indarreko kopia bat izan beharko du. Hala ere, baimenaren titulartasunean edo indarraldian eten bat baimenduko da, gehienez ere hiru hilabetetik pasatuko ez den epe batez. Ondorio horiei dagokienez, eskabidea aurkezterakoan birgaiturik badaude, bisatuaren falta dela-eta iraungitako baimenak indarrean izan direla ulertuko da. Laguntza ematea eragiten duen baimenak indarrean egon behar izango du egoera hauen onarpenera arte, ezintasun iraunkor absolutua, osoa edo baliaezintasun handia denean.

Trakzio propiodun ibilgailuei dagokienez, 2007ko apirilaren 16a baino lehen onuradunaren titulartasunpeko diren baimenak (barne direla TD motakoak), salgaien garraio publikorako direnak, zehazki estatuko eremukoak, baimen baten kopia gisa zenbatuko dira.

Onuradunaren titulartasunpeko ibilgailuari dagokionez, 1998ko uztailaren 1a baino lehen bidaiariaren garraio publikorako diren baimenak, zehazki estatuko eremukoak, baimen baten kopia gisa zenbatuko dira.

d) Gizarte Segurantzako langile autonomoentzako erregimenean alta emanda egotea, hain justu ere azken hamar urteetan etenik gabe; gehienez ere, hiru hilabetetik pasatzen ez den eten bakarria onartuko da.

Ezintasun iraunkor absolutuak edo osoak edo baliaezintasun handiak eragiten dien eskatzaileen kasuari dagokionez, halakorik aitortu zaienetik hara zenbatuko da aipatutako hamar urteko epea.

e) 2022ko azaroaren 30a baino lehen, errepidez bidaiariak edo salgaiak garraiatzeko jarduera bertan behera uzteko konpromisoa hartzea; betiere, bere titulartasunpeko garraio-baimenei behin betiko uko eginez. Jarduerari berriz ekinez gero, jasotako laguntzak edo tokatzen diren interesak itzultzeko obligazioa izango du.

2.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradunak hauek izan daitezke: pertsona bakarreko merkataritza-sozietateen bazkide bakarrek, salgaien garraio publikoaren edo autobusez egiten den bidaiariaren garraio publikoaren baimenaren titulartasuna dutenak, betiere pertsona bakarreko sozietateak zein bazkide bakarrek aurreko apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Agiri bidez egiaztatu beharko dute, eta, ahal bada, merkataritza-erregistroko ziurtagiriaren bidez, azken hamar urteotan sozietatea pertsona bakarrekoa izan dela.

3. artikulua.– Onuradunen betekizun orokorrak.

Onuradunak izan daitezke honako betekizun orokor hauek betetzen dituzten pertsonak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

b) Epai irmoaren bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigorrik ez izatea, edo prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoak, iruzurrak eta ordainarazpen ilegalak edo hirigintza-delituak egiteagatik kondenatuta ez egotea, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako laugarrenak xedatutakoaren arabera.

c) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

d) Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu ez izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat jo ez izana, konkurtsoan deklaratu ez egotea, salbu eta horretan hitzarmen batek eraginkortasuna hartu badu, eta esku-hartze judizialaren mende ez egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaitua izatea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

e) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin ez izana, erruduntzat jo diren kausagatik.

f) Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan jardutea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legean eta Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean jasotako egoeraren batean ez egotea, eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsi-karguren bat ez izatea, lege horretan bertan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

g) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren ebazpen irmoaren bidez zigortua ez izatea.

h) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 3. artikuluetan jasotako debekuren batean ere ez egotea.

4. artikulua.– Laguntzak izapidetzea.

1.– Agindu honetan araututako laguntzen izapidetzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan arautzen da, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko 16/1987 Legearen 56. artikuluari lotuta.

2.– Interesdunek baliabide elektronikoaren bidez egin behar izango dituzte eskaera, kontsultak eta prozedurako izapide guztiak.

Laguntza hauek izapidetzeko baliabide elektronikoak erabiltzeko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan jarriko dira: <http://www.euskadi.eus/egoitza>

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta horretarako epea.

1.– Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, non izapideak egiteko jarraibideak eta ereduak eskuragarri dauden eta eskabide-inprimakian sartzeko aukera ematen duen, helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0031107>

Eskabidearen ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta»ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Elektronikoki izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkari Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaririk>

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.– Agiriak aurkeztea.

1.– Aginduan araututako laguntzak eskuratzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Eskabide-orria, behar den moduan beteta, I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

b) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, nortasuna automatikoki egiaztatuko da eskabidea bitarteko elektronikoa erabiliz egiten denean; izan ere, baliabide horiek eskuratzeko, pertsona horiek ziurtagiri digitalaren edo baliokidearen bidez identifikatu behar dira.

c) Eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik dagoela egiaztatzeko agiria, noiztik erroldaturik dagoen jasotzen duena.

d) Pertsona bakar bateko sozietateen bazkide bakarren kasuan, eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia edo IFZ, Merkataritza Erregistroko inskripzio-ziurtagiria eta, halaber, eratze-eskriturak, edo onuraduna bazkide bakarra dela egiaztatzen duen agiria.

e) Azken hamar urteetan, etenik gabe, Gizarte Segurantzako langile autonomoentzako erregimenean alta emanda egon izanari buruzko egiaztagiria.

f) Beharrezkoa bada, ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia aitortua izateari buruzko egiaztagiria.

g) Hirugarrenen altaren edo horren aldaketaren fitxa, Ekonomia eta Ogasun Sailak ezarritako ereduaren arabera; honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak> lehenengoz aurkezten diren edo banku-datuak aldaturik dituzten eskatzaileek bakarrik aurkeztu beharko dute. Fitxa hori laguntza eman ondoren aurkeztu daiteke, baina, betiere, laguntzak ordaindu baino lehen.

2.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskabidea eta beharrezko dokumentazioa. Gainera, laguntza-eskabidetik eratorritako jardunetan eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeraturiko hizkuntza baliatuko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

3.– Laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, eta, horretarako, ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz. Hala ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimena eta, orduan, dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Halaber, laguntzak eskatzen dituzten pertsonak salgaien edo bidaiarien autobuseko garraio publikorako baimenen titulartasuna eskatzen den antzintasunarekin dutela egiaztatzeko, organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, haien baimenik behar izan gabe, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan eta

otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 6. artikuluan (puntu honetan apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuaren bidez aldatua) ezarritakoaren arabera. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori eskabidea egitean, eta, hala egiten badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

4.– Laguntza eskatzen duen pertsonak, eskabidearekin batera, eskabide-orrian agertzen den eran-tzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, honako alderdi hauen egiazkotasunari buruzkoa:

a) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu eta, hala badagokio, eskuratu direla jakinaraztea.

b) Agindu honen 2.1 artikulua e) letran eta 3. artikulua b) letratik h) letrara ezarritako alderdiak.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak beste edozein agiri edo argibide eskatu ahal izango du, baldin eta aurkeztu den eskabidea behar bezala balioesteko beharrezkotzat jotzen badu.

7. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sai-leko Garraio Plangintzaren zuzendariaren ardura izango da agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

8. artikulua.– Agirien gaineko akatsak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkezturiko agiriek agindu honetan eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen ikusiz gero, hala jakinaraziko dio organo kudeatzaileak eskatzaileari, eta hamar egun balioduneko epea utziko dio, akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko; gainera, adieraziko dio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, ebazpen bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako eran.

9. artikulua.– Zenbatekoa.

1.– Agindu honetan araututako laguntzen gehieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

a) Garraiolariari hirurogeita bost urte betetzeko falta zaion sei hilabeteko epe bakoitzeko lau mila eta ehun euro (4.100); ibilgailu astunez egindako salgaien garraio publikoko eta autobusez egindako bidaiarien garraio publikoko baimenei dagokienez.

b) Garraiolariari hirurogeita bost urte betetzeko falta zaion sei hilabeteko epe bakoitzeko bi mila eta seihun euro (2.600); ibilgailu arinez egindako salgaien garraio publikoko baimenei dagokionez.

c) Ezintasun iraunkor absolutua edo osoa aitortua duen edo baliaezintasun handia aitortua duen garraiolariari hamar mila euro (10.000).

2. artikuluko gainontzeko betekizunez gain, artikuluko 1.b) apartatuan ezarritako adinaren betekizuna eta ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia aitortu izatearena betetzen dituzten onuradunek kopuruz handiena den laguntza jasoko dute.

2.– Sei hilabeteko osoen zenbaketa 2022ko ekainaren 1etik aurrera egingo da.

3.– Agindu honen 1.2 artikuluan ezarritako diru-kopurua aski ez bada aurkeztutako eskabide guztiei artikuluko 1. puntuan jasotako gehieneko laguntza ordaintzeko, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean banatuko da dirua. Banaketa egiteko, bakoitzari eman

beharko litzaiokeenak guztiei eman beharreko zenbateko osoarekiko izango lukeen proportzio berari eutsiko zaio.

10. artikulua.– Bateragarritasuna.

Agindu honekin bat emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste pertsona juridiko eta fisiko batzuek emandakoekin.

11. artikulua.– Dirulaguntza eman, jakinarazi eta argitaratzea.

1.– Dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Plangintzaren zuzendariaren ebazpen bidez emango dira. Ebazpen horrek ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio administrazio bereko Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari, hilabeteko epean.

Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako modua erabiliz, eta sei hilabeteko epean, agindu honek ondorioak dituen egunetik hasita. Ebazpen horrek zehaztuko du dirulaguntza ematen den ala ukatzen den; aldekoa bada, onuraduna zein den eta zenbat diru ematen zaion azalduko da, eta kontrakoa bada, ukatzeko arrazoiak.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako epearen barruan ez bada jakinarazten laguntzak esleitzeko ebazpena, eskabideak ezetsiak izan direla ulertu ahal izango dute interesdunek, 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan aurreikusitako ondorioei dagokienez.

3.– Laguntzak esleitzeko prozedura amaitzeko ebazpena interesdunei jakinarazteaz gain, onuradunak eta emandako zenbatekoak jasotzen dituen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Agindu honetan berariaz aurreikusi gabekoari dagokionez, honako hauen bidez arautuko da dirulaguntzak emateko prozedura: 39/2015 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; Dirulaguntzei buruzko oinarrizko araudia, hau da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua).

12. artikulua.– Ordainketa.

1.– Laguntza emandakoan, onuradunak jarduera bertan behera utzi duela egiaztatzen badu, laguntza osorik ordainduko da, baina hark honako betekizunak bete beharko ditu:

Laguntzaren onuradunak uko egin beharko die honako hauei: laguntza ematea eragin zuen baimenari edo baimenei, eta bai bidaiariari eta salgaiari garraio publikorako dituen ere; betiere baimen horietan baja hartu izana egiaztatuaz.

Enpresaburu legez garraio-jarduera behin betiko uzteko konpromisoa hartu beharko du, bai eta, bere gaitasun profesionala beste garraio-enpresa bati ez ematekoa ere.

Baimendutako gehieneko 3.500 kg-ko masatik gorako ibilgailuak edo/eta autobusak gidatzeko baimen balioduna badu, dagokion trafikozuzendaritzan uko egin beharko dio hari; eta hori, gida-baimen berriaren aurkezpenaren bitartez justifikatu ahal izango da.

2.– Dirulaguntza eskuratzeko betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak 2022ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Ezin izango da dirulaguntzaren ordainketa egin onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzulketaren bidez kototasun-ebazpen bidez zordun bada.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzak eskuratzen dituztenek honako betebeharrak hauek izango dituzte kasu guztietan:

a) Dirulaguntza eskuratzeko beharrezko diren betekizun eta baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko diote dirulaguntza eman behar duen Administrazioari.

b) Emandako dirulaguntza onartu beharko dute. Dirulaguntzaren berri ematen dien jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek idatziz uko egiten ez badiote, onartu egiten dutela ulertuko da.

c) Ematen den helbururako erabili beharko dute dirulaguntza.

d) Helburu bererako beste laguntza edo dirulaguntzaren bat lortu badu, horren berri eta nork eta zenbat eman dion jakinarazi beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzari.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatzen dieten informazioa ematea.

f) Dirulaguntzen onuradunen betebeharren inguruan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

2.– Artikulu honen 1.e) apartatuan adierazitako organoen eskudantziak gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ahalmena izango du emandako dirulaguntzei buruz bidezko jotzen dituen egiaztapen guztiak egiteko.

14. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren bat aldatuz gero, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da, betiere deialdi honetan onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen jarraituz gero.

15. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzea.

Onuradunak agindu honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean edo aplikatu beharreko gaineko arauetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, organo eskudunak, onuradunari entzun ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratu du, eta, hala badagokio, dagokion diru kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzera behartuko du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta dirulaguntzetarako betebeharrak betetzen direla zaintzeko gainontzeko arauak ezarritakoa betetzeko. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira lege-ondorio guztietarako. Horrek guztiak ez du galaraziko, ordea, bestelako zehapenak jartzea, eta kalte eta galerengatiko ordainak eta, halakorik izanez gero, erantzukizun penala ere eskatzea.

Halaber, itzultzeko arrazoen inguruan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da; kasu horretan, jasotako zenbatekoak, osorik edo partez, eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira.

16. artikulua.– Datuen babesa.

Agindu honen aplikazioan jasotako datu pertsonalak tratatuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatzekoa den gainerako araudian xedatutakoaren arabera. Era berean, Osasunari buruzko datuak tratatuko dira (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 9.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 10a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA

JARDUERA BERTAN BEHERA UZTEKO LAGUNTZETARAKO ESKABIDE-EREDUA

I.– IDENTIFIKAZIOKO DATUAK.

a. TITULARRA

Lehen abizena: Bigarren abizena:
Izena: NAN/AIZ:.....
Jaioteguna: Sexua:
edo
IFZ/IFK:
Erakundearen izena:

b. ORDEZKARIA

Lehen abizena: Bigarren abizena:
Izena: NAN/AIZ:.....

II.– HELBIDEA.

Helbidea:
Probintzia: Udalerria:
Posta-kodea:

III.– ESKABIDEAREN HELBURUA.

Laguntza-mota:

- Salgaien garraio publikoa ibilgailu astunetan.
- Salgaien garraio publikoa ibilgailu arinetan.
- Bidaiarien garraio publikoa autobusetan.
- Ezintasun iraunkor absolutua edo osoa, edo baliaezintasun handia.

IV.– JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK BIDALTZEKO.

Jakinarazpena egiteko kanala: telematikoa.

Ohartarazpenak:

Posta elektronikoa:
Telefonia (SMS) :

V.– JAKINARAZPENAK ZEIN HIZKUNTZATAN JASO NAHI DITUZUN.

- Gaztelania
- Euskara

VI.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK (Markatu x batekin):

Ez dut xede eta helburu bererako beste administrazio batek edo erakunde pribatu batek emandako laguntzarik jaso, ez ekitaldi honetan, ez aurreko bi urteetan.

edo

Beste laguntza bat ere jaso dut: Zenbatekoa: euro. Laguntza eman didan administrazioa:..... Urtea:

edo

Beste laguntza bat eskatu dut, baina oraindik ebazpena jasotzeko zain nago. Eskatutako laguntzaren zenbatekoa:euro. Administrazioa:

Epai irmoaren bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigorrik ez izatea, edo prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta ordainarazpen ilegalak edo hirigintza-delituak egiteagatik kondenatuta ez egotea, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako laugarrena xedatutakoaren arabera.

Ez nago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren organismo autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntza batzuen esparruan hasi zen eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.

Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu ez dudala, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez nautela, konkurtsoan deklaraturik ez nagoela, salbu eta horretan hitzarmen batek eraginkortasuna hartu badu, eta esku-hartze judizialaren mende ez egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaitua izatea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin ez izana, erruduntzat jo diren kausagatik.

Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan jardutea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legean, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsi-karguren batean ez egotea, lege horretan bertan edo lege horretan araututako gaietan.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren ebazpen irmoaren bidez zigortua ez izatea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 3. artikuluetan jasotako debekuren batea ere ez egotea.

Enpresari legez garraio-jarduera behin betiko uzteko konpromiso formala hartzen dut.

Beste garraio-enpresa baten gaikuntza profesionaleko titulua ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dut.

Eskabideko datuak eta hari erantsitako agirietakoak egiazkoak dira.

39/2015 Legearen 69. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, VI. paragrafo honetan adierazitako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa daukat. Dokumentazio hori Administrazioaren esku utziko da, hala eskatzen zaionean, bai eta dirulaguntza horren gozamenak irauten duen bitartean betetzen jarraitzeko konpromisoa ere.

VII.– ADMINISTRAZIOAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA (markatu x batez aurka egonez gero):

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen organo instrukzio-egileak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskuduneari:

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia).

– Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).

Prozedura honen instrukzio-organismoak ofizioz egiaztatzearen aurka nago (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Aurka eginez gero, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu.

VIII.– EGIAZTATZEN DEN DOKUMENTAZIOA (markatu x batez):

a) Eskabide-orria behar bezala beteta.

b) Eskatzaileak ordezkari bat beste pertsona edo entitate bati ematen badiu, horren ordezkariak aurkeztu egin beharko du ordezkariaren emateko agiria.

c) Eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik dagoela egiaztatzeko agiria, noiztik erroldaturik dagoen jasotzen duena.

d) Pertsona bakar bateko sozietateen bazkide bakarren kasuan, eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia edo IFZ, Merkataritza Erregistroan inskripzio-ziurtagiria eta halaber eratzeko eskriturak edo onuraduna bazkide bakarra dela egiaztatzen duen agiria.

e) Azken hamar urteetan, etenik gabe, Gizarte Segurantzako langile autonomoentzako erregimenean alta emanda egon izanari buruzko egiaztatzea.

f) Beharrezkoa bada, ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia aitortua izateari buruzko egiaztatzea.

g) Hirugarrengoen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ogasun eta Ekonomia sailak ezarritako ereduaren arabera; betiere, lehenengoz aurkeztu diren edo banku-datuak aldaturik dituzten eskatzaileei dagokienez.

IX.– BEHIN EMANDA, DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO BEHARREZKOA DEN DOKUMENTAZIOA.

a) Foru-aldundiak emandako baimenaren/baimenen baja egiaztatzeko agiria, zeinetan baja hartzeko zio gisa jarduera uztea zehazten den.

b) Gidabaimenaren titularra izanez gero, baimendutako gehieneko 3.500 kg-ko masatik gorako ibilgailuak edo autobusak gidatzeko baimenari behin betiko uko egin izana justifikatzeko agiria, gidabaimen berriaren fotokopia konpultsatua.

X.– DATU PERTSONALAK BABESTEIA.

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak garraioan jarduera uzteagatik laguntzak izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

- **Arduraduna:** Eusko Jaurlaritzako Garraio Plangintzaren Zuzendaritza.
- **Helburua:** laguntzen jarraipena, kontrola eta kudeaketa.
- **Legitimazioa:** interes publikoko misioa edo ahal publikoak baliatzea. Azalpena eta erregulatzen duen araua. Agindua, 2020ko ren (e) koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, salgaien eta bidaiarien garraio publikoaren sektoreari jarduera uzteagatik laguntzak emateko programa ezartzen duena.
- **Hartzaileak:** datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala agintzen ez badu.
- **Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio gehigarria:** datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza gure web-orrian kontsulta dezakezu: <https://www.euskadi.eus/rgpd/0031104>

Honako hauek betetzeko:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>). Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>).

Halaber, jakinarazten dizugu banku-datuak eta posta komunikazioetarako datuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen hirugarrenen erregistroan gordeko direla.

Administrazio Publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki ikusten dituen egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

Data:

Sinadura: